

Une honetako obra guztiek espazioaren bizgarritasun baldintzak hobetzea dute xede, sukaldeak eta bainugelak berri zizuten, baita leihoak ere.

XX. mendearen bigarren erdialdean kokatu behar ditugu obra horiek.

Laburpena

Burura eramandako azterlanak aukera ematen digu hiribilduko harresitik hondakin garrantzitsuak kontserbatzen direla berresteko, lehendik egindako azterlanei esker hondakin horiek mendebalderantz kontserbatzen zirela baikenekien. Kontserbatutako hondakin horiek XV.-XVI. mendeetan babesteko barrutiaren espazioa handitzeko xedean bideratutako lanen garaikoak dira.

Lehendik egindako azterlanekiko berrikuntza bakarra da ipar-mendebaldeko dorretzara harresia handitzeko aldi honetan kokatu behar dela, eta ez ondorengo aldietan. Beraz, goiko aldean almenak izango zituen harresia da, eta barruko aldean dorretzar bat izango zuen harresiak ekialderantz egiten duen lekuan.

Egungo etxebizitzak, beheko hormetan, orubean eraikiriko aurreneko etxebizitzari zegozkion hondakinak kontserbatzen zituen, eta XVII.-XVIII. mendeetan eraikitako jauregietan egindako obrekin bat egin lezakete horiek. Aztarna horiek hegoaldeko, ekialdeko eta iparraldeko beheko hormetara mugatzen dira. Era berean, une horretakoak dira sotoa eta behe oineko zurezko egituraren atal bat. Bodega ere aurreneko etxebizitza honekin batean eraikiko zuten.

XIX.-XX. mendeetako berritze lanak dira gainerako obrak, eta horiek etxebizitzaren berreraikuntza ia erabatekoa ekarri zuten.

Todas las obras de este momento están relacionadas con la mejora de las condiciones de habitabilidad del espacio, modernizando las cocinas y baños, así como las ventanas.

La fecha de estas obras es de la segunda mitad del siglo XX.

Síntesis

El estudio realizado nos permite establecer que se conservan importantes restos de la muralla de la villa, como ya se conocía por estudios anteriores, hacia el oeste. Los restos conservados pertenecen por completo a una fase de ampliación del espacio del recinto defensivo realizada en los siglos XV-XVI.

La novedad con respecto a estudios anteriores, está en la asignación del torreón NW a esta fase de ampliación de la muralla y no a momentos posteriores. Se trataría, por lo tanto, de una muralla rematada con almenas, y con un torreón interior en la zona en la que el trazado cambia de dirección hacia el este.

La vivienda actual conservaba, en los muros inferiores, restos de la primera vivienda construida en el solar, que podría coincidir con las obras de los palacios de los siglos XVII-XVIII. Estas evidencias se limitan a parte de los muros bajos de la fachada sur, este y la norte. Asimismo, el sótano y parte de la estructura de madera de parte de la planta baja pertenecían a este momento. La bodega también se construiría con esta primera vivienda.

El resto de las obras son reformas de los siglos XIX-XX, con una reconstrucción casi completa de la vivienda.

L. Sánchez Zufiaurre

A.13.3. UDAL BARRUTIA / TÉRMINO MUNICIPAL

A.13.3.1. **Santa Luzia edo Torrentejo** **herri hustua**

Zuzendaritza: Juan Antonio Quirós
Finantzazioa: Arabako Foru Aldundia

A.13.3.1. **Despoblado de Torrentejo** **o Santa Lucía**

Dirección: Juan Antonio Quirós
Financiación: Diputación Foral de Álava

In 2014, the first season of excavations was carried out in the abandoned village of Torrentejo, in the place known as Santa Lucía. The intervention aimed to analyse the social, political and population context of the town, which appears in written records since the 11th century. The oldest archaeological remains found correspond to various agricultural terraces dating from the 7th century, which were later extended during the 8th and 9th centuries. In the area around the current Santa Lucía Chapel, evidence has been found of an initial domestic occupation dating from the 9th and 10th centuries, over which the first pre-Romanesque church was built during the 11th century, dedicated to Saint Mary. The church was completely demolished during the 12th century, when the current building was constructed. Although the town was abandoned during the Late Middle Ages, evidence has been found at the foot of the chapel of fairly dense occupation dating from the modern era. The church has been renovated a number of times during the 18th, 19th and 20th centuries.

2014. urtean eraman dugu burura lehenengo indusketa kanpaina Torrentejo herri hustuan, Santa Luzia izenaz ezagutzen den lekuan, UPV/EHuko Ondare eta Paisaia Kulturaren Ikerketa Taldearekin ba-

En el año 2014 se ha llevado a cabo la primera campaña de excavaciones en el despoblado de Torrentejo, en el lugar conocido como Santa Lucía con la financiación y dentro del Grupo de Investigación en

tean eta haren laguntza ekonomikoarekin. XI. mendeaz geroztik idatziriko dokumentazioan aipatzen den herri hustuko gizartearen, politikaren eta populazioaren testuingurua aztertzea izan du xede esku hartzeak. Bertan aurkitutako hondakin arkeologiko aspaldikoenak VII. mendean datatu daitezkeen laborantza lanetarako terrazak dira, eta terraza horiek VIII. eta IX. mendeetan handitu egin zituztela esan behar dugu. Egungo Santa Luzia basilizaren inguruan IX. eta X. mendeetan datatu daitezkeen lehenengo etxebizitza baten presentzia egiaztatu dugu, haren gainean eraiki zuten XI. mendean Andra Maria ohoratzeko aurreneko eliza «aurre-erromanikoa». Eliza hori erabat eraitsi zuten XII. mendean, egungo tenplua eraiki zuten. Herrixka Behe Erdi Aroan abandonatuko zuten arren, aro modernoan basilizaren oinetan okupazio garrantzitsua gertatu zela identifikatu dugu. Eliza hainbat aldiz zaharberritu dute XVIII., XIX. eta XX. mendeetan.

Sarrera

Arabako Errioxako paisaia kulturen azterketaren inguruan garatzen ari den proiektu arkeologikoa herri hustuen azterketara ari da mugatzen, botere guztiaren depositu arkeologikoen kontserbazio egoera oso eskasa dela egiaztatu ahal izan eta gero. Oso zail dago aztarnategi horiek irakurri ahal izatea, mendeetan zehar masiboki aldatutako mahastiek nabarmen eraldatu baitute paisaia hauetako morfologia eta topografia. Izan ere, oso esanguratsua da alde honetan guztian funtsean nekropoliak izatea Erdi Aroko landa eremuko herrixketatik ikus daitezkeen elementu bakarrak, nekropoli horiek mahatsondoei ezin leku egin diezaieketen harrizko geruzetan eginak baitira.

Bastidako lurraldean sakon aztertu litekeen adibide urrietako bat da Torrentejo herrixkaren kasua. Era beran Santa Luzia izenaz ezagutzen da, eta izen bereko basilizaren ondoan dago, Ebro ibaiaren bazterrean. Arkeologiaren ikuspuntutik, Santa Luzia basiliza da aztarnategi honetako elementu garrantzitsua. Dokumentuetan Torrentejo Ama Birjinaren izenarekin eta Torrentejo Andra Maria izenarekin azaltzen ere da. Eraikin «erromaniko» bat da, aro modernoan nabarmen eraldatua eta aspaldi ez dela zaharberritua izan dena.

Torrentejo herri hustua

Torrentejo edo *Torrenteio* Iruñeko monarkiarik lotutako herrixken artean ageri da San Millán de la Cogolla XI. eta XII. mendeetako dokumentuetan. Izan ere, 1075. urteko dokumentu interesgarri baten arabera, errege Antso Gartzes IV.a Peñalengoak San Millán monasterioari eman zion herrixkaren erdia *Torrenteio*-ko Ama Birjinaren elizarekin; dokumentu horretan zehazten dira orduko herrixkaren mugak. Eta herrixka zehazten duten toponimo batzuk identifikatzeko garaian zalantza batzuk sortzen diren arren, Torrentejo Erdi Aroko herrixkak gutxi gorabehera 2,7 km²-ko azalera hartzen zuela esan dezakegu. Dokumentu horri esker badakigu garai hartako Torrentejo Nafarroako erregearen zergak biltzeko zerrendara biltzen zela, edo gutxienez erregearen jabetza zela.

Patrimonio y Paisaje Cultural de la UPV. La intervención ha tenido como objeto analizar el contexto social, político y poblacional del despoblado mencionado en la documentación escrita desde el siglo XI. Los restos arqueológicos más antiguos hallados se corresponden con varias terrazas agrarias fechables en el siglo VII, ampliadas entre los siglos VIII y IX. En el entorno de la actual ermita de Santa Lucía se ha constatado la existencia de una primera ocupación doméstica fechable en los siglos IX y X, sobre la que se construyó en el siglo XI una primera iglesia «prerrománica» dedicada a Santa María. Esta iglesia fue completamente desmantelada en el siglo XII, cuando se realizó el templo actual. Aunque el poblado debió de abandonarse en la Baja Edad Media se ha identificado una ocupación de época moderna de notable entidad a los pies de la ermita. Durante los siglos XVIII, XIX y XX la iglesia ha sido restaurada en varias ocasiones.

Introducción

El proyecto arqueológico que se está desarrollando en torno al estudio de los paisajes culturales de la Rioja a Lavesa se está concentrando en el análisis de los despoblados una vez que se ha podido constatar el precario estado de conservación de los depósitos arqueológicos de los centros de poder. La legibilidad de estos yacimientos está muy penalizada, a su vez, por la incidencia que ha tenido a lo largo de los siglos la implantación masiva de viñedos que han modificado notablemente la morfología y la topografía de estos paisajes. De hecho es muy significativo que en toda esta zona sean sustancialmente las necrópolis los únicos elementos visibles del antiguo poblamiento rural medieval puesto que han sido realizados en afloramientos rocosos que no son susceptibles de ser empleados como viñas.

Uno de los pocos ejemplos presentes en el territorio de Labastida susceptible de ser estudiado en extensión es el caso del poblado de Torrentejo, denominado también Santa Lucía, donde se localiza la homónima ermita a orillas del río Ebro. El elemento arqueológicamente más significativo de este yacimiento es la ermita de Santa Lucía, también denominada Nuestra Señora de Torrentejo o Santa María de Torrentejo en la documentación. Se trata de un edificio «románico» que ha sido transformado notablemente en época moderna y restaurado en fechas recientes.

El despoblado de Torrentejo

El lugar de Torrentejo o *Torrenteio* aparece en la documentación de los siglos XI y XII de San Millán de la Cogolla como una de las localidades asociadas a la monarquía pamplonesa. De hecho, en un interesante documento del año 1075 el rey Sancho IV, el de Peñalén, dona a San Millán la mitad de la aldea con la iglesia de Santa María de *Torrenteio*, especificando los límites que entonces tenía el término. Y aunque hay varias incertidumbres a la hora de identificar algunos de los topónimos que definen la aldea, se puede estimar que el poblado medieval de Torrentejo ocupaba una extensión de unos 2,7 km². A través de este documento sabemos, además, que Torrentejo en este período formaba parte del fisco de la monarquía navarra o al menos era de propiedad del monarca.



Santa Luzia basilizaren eraikuntzaren aldi nagusiak.

Principales fases constructivas de la ermita de Santa Lucía.

Jauntxoek Arabako Errioxako sektore honetan eta herri mailan zeuzkaten botereen garrantzia are agerikoagoa da San Millango Kartulario Galikanoan kontserbatutako XI. mendearen bigarren erdialdeko beste dokumentu batzuetan. XII. mende amaieran idatzitako kartulario horretan 1073-1089 urteetan Torrentejon burututako ekintzen zerrenda kontserbatzen da. Zerrenda horretan adierazten zaizkigu San Millán de la Cogollako monasterioak leku honetan zeuzkan jabetzeak, eta onibarren eskualdatze ugariaren berri ematen digute aldi berean. Dokumentu horretan hainbat toponimo txiki eta hagiotoponimo batzuk aipatzen dira, eta alde honetan egongo ziren hainbat elizari (San Andres, San Jorge, San Salbatore), jauregi eta mahasti askori egiten diete erreferentzia. Dokumentu horretan, gainera, hamahiru bizilagun eta beste jabe batzuk aipatzen dira, horien artean hiru *senior* eta *dommo* edo *domma* titulua baliatzen duten zazpi lagun, herrixka honetako bizimoduaren adierazgarri den gizarte konplexuaren erakusgarri.

XI. eta XII. mendeetako dokumentuetan erreferentzia gehiago badauden arren, 1200. urtetik aurrera dokumentazioa askoz ere urriagoa da, garrantzi txikioa gainera leku honetako historia argitzeko. Dokumentu horien argitara, leku hau 1320 eta 1440 urte bitartean abandonatu zutela iradoki dezakegu, baina oraingo ezin gehiago zehaztu dezakegu.

1780. eta 1781. urteetan zaharberritu egin zuten eliza, eta ordutik aurrera Torrentejo Ama Birjina edo Andra Maria izateari utzi zion Santa Luzia eliza bihurtzeko. Gaur egun ere izen horrekin ezagutzen dute alde hau. Urtero erromeria bat egiten da alde honetan, herri hustuetan kontserbatzen diren «eliza-lekuko» hauen inguruan antolatzen diren ekimen erlijiosoen adierazgarri.

Laburbilduz, aztarnategi honi buruz kontserbatu diren iturri idatziak aski urriak diren arren, Arabako Erdi Aroko gizartei buruzko eta aro modernoko eta aro garaikideko herritarren erlijiozaletasunari buruzko kontu garrantzitsu batzuk aztertu ahal izateko bezain zehatzak direla esan beharrean gaude.

La relevancia de los poderes señoriales a escala local en este sector de la Rioja Alavesa es aún más patente en otros documentos de la segunda mitad del siglo XI conservados en el Cartulario Galicano de San Millán. En este cartulario, redactado a finales del siglo XII, se conserva un listado de actos realizados en Torrentejo entre los años 1073-1089 que nos informa acerca de las posesiones que tenía el monasterio de San Millán de la Cogolla en este lugar y de numerosas transacciones de bienes raíces. En el documento se mencionan varios microtopónimos así como algunos hagiotoponimos que hacen referencia a la más que probable presencia de varias iglesias en la zona (San Andrés, San Jorge, San Salvador), palacios, así como numerosas viñas. Además, en el documento se mencionan trece vecinos y otros propietarios entre los que se incluyen tres *seniores* y siete personas que emplean el título de *domno* o *domna*, testimonio de la complejidad social en la que se desenvuelve la vida de este poblado.

Aunque hay más referencias documentales de los siglos XI y XII, a partir del 1200 la documentación es mucho menos abundante y relevante a la hora de historiar el lugar. A la luz de estos documentos es posible sugerir que el abandono del lugar tuvo lugar entre los años 1320 y 1440, sin que de momento sea posible precisar más.

Durante los años 1780 y 1781 la iglesia fue restaurada y, a partir de entonces, desaparece la advocación de Santa María o Nuestra Señora de Torrentejo a favor de la de Santa Lucía, topónimo con el que será conocido aún hoy en día el lugar. De forma anual se celebra en el lugar una romería, expresión de la religiosidad popular que se articula en torno a estas «iglesias testigo» que se preservan en los despoblados.

En definitiva, aunque las fuentes escritas conservadas relativas a este yacimiento no son especialmente abundantes, si son lo suficientemente explícitas como para poder analizar algunos aspectos relevantes sobre las sociedades medievales alavesas y sobre la religiosidad popular en época moderna y contemporánea.

Indusketa lanen emaitzak

Eliza honetan eta azken hamabost urteetan bi esku hartze arkeologiko bideratu diren arren, eliza gizarte, populazio eta paisaia esparru zabal eta esplikagarrian kokatzea izan da proiektu arkeologiko honen helburu nagusia. Orain arte bederen, elizak ez du bere testuingururik, eta ondorioz, formaren ikuspegitik baikiz ezin izan da aztertu.

Bi indusketa eremu edo sektore nagusitan jardun dugu, elizaren inguruan dago lehenengo sektorea eta basilizaren hegoaldeko terrazetan, laborantzari emandako terrazetan, bigarrena.

1. sektorea. Elizaren hegoaldean 260 m²-ko azalera altza genuen eta, gainazal horren hegoaldean harkaitza ia azalean azaltzen zen bitartean, basilizaren ondoko depositu arkeologikoek erraz gainditzen zuten bi metroko lodiera. Hortaz, sakon aztertu genuen horma batzuek mugatutako gutxi gorabehera 40 m²-ko sektore txiki batean.

Oso konplexua da nola zorupean hala tenpluaren hormetan identifikatutako okupazioaren sekuentzia, eta honako aldi nagusi hauetan bereizten dela esan behar dugu. Lehenengo aldikoak dira etxeke izaera duten depositu batzuk, gerora suntsituak gertatu zirenak. Bertako zeramikaren arabera eta datazio


Resultados de las excavaciones

Aunque la iglesia ha sido objeto de dos intervenciones arqueológicas en los últimos quince años, el principal objetivo de este proyecto arqueológico ha sido el de colocarla en un marco social, poblacional y paisajístico amplio y explicativo. Hasta el momento la iglesia carece como tal de un contexto, por lo que solamente ha podido ser analizada desde un punto de vista formal.

Se ha intervenido en dos sectores de excavación principales: uno en torno a la iglesia y otro en las terrazas de uso agrario situadas al sur de la ermita.

Sector 1. Al sur de la iglesia se ha abierto una superficie de 260 m² en la que ha sido posible observar que, mientras en el área meridional la roca prácticamente afloraba en la superficie, en proximidad de la ermita la potencia de los depósitos arqueológicos superaba ampliamente los dos metros. Por este motivo se ha intervenido de forma intensiva en un pequeño sector de unos 40 m² delimitados por algunos paramentos.

La secuencia ocupacional identificada tanto en el subsuelo como en los paramentos del templo es muy compleja y se articula en las siguientes fases principales. La primera fase se corresponde con una serie de depósitos de carácter doméstico que han sido posteriormente arrasados, que se fechan a partir de la cerá-



Torrentejoko bost terrazen ekialdeko sekzioa. Bertan identifikatu dira lurrezko horizonteak. Argazkian: Torrentejoko laborantza terrazak eta Santa Luzia basiliza Ebro ibaiaren bazterrean.

Sección oriental de las cinco terrazas de Torrentejo en la que se han identificado los horizontes edáficos. En fotografía terrazas agrarias de Torrentejo y ermita de Santa Lucía a orillas del río Ebro.

erradiometrikoak berretsita, IX. mende amaiera eta X. mende arteko deposituak dira. Bigarren aldikoak dira harkaitzean induskatutako hilobi bat eta zortzi metro luze den horma, XI. mendean datatua. Dokumentu idatzietan aipatzen den Ama Birjinaren lehenengo elizatzat dugu hori. Hirugarren aldiari eraikei zuten egungo eliza, bi etapatan (lehenik burualdea eraikei zuten eta gero habeartea), aurreko eraikina suntsitu ondoren. Geroago Erdi Aroko depositu batzuk sortuko ziren, lodiera eta garrantzi eskaseko deposituak, eliza «erromanikoari» itsatsiak, eta berriaz lan batzuk egin zituzten aldi berean tenpluaren fatxadetan. XIV. mende hasierakoak dira Erdi Aroko azken materialak, eta beraz garai horretan abandonatuko zuten herririk. Askoz ere hobe irakur daiteke bosgarren aldia, orduan eraikei baitzituzten hainbat horma eta zoru bat tenpluaren mendebaldeari atxiki. Segur asko bizitokiaren eta artisautza tailerraren zeregina beteko zuten egitura horiek. Aipatu egitura horiek guztiak XVII. mende amaierako edo XVIII. mende hasierako depositu masiboek amortizatuta daude, eta depositu horietan txanpon kopuru handi bat eta zeramika bilduma garrantzitsua berreskuratuta ditugula esan behar dugu. Izan ere, orduan abandonatuko zuten, partzialki bada ere, XVIII. mendeko laurogeigarren urteetan zaharberrituko zuten tenplua. Ordutik aurrera, XIX. eta XX. mendeetan zehar, erabat zaharberritu zuten Santa Luzia basiliza, eraikinaren hormetako sekuentzia estratigrafikoan ongi asko ikusten den bezala.

2. sektorea. Santa Luzia basilizaren hegoaldeko muinoan –Castrijo izenarekin ezagutzen dute haren ekialdeko tarte– terraza batzuk bereizten dira, batzuk honez gero erabat utzita dauden mahasti zaharrek okupatuta. Laborantzari emandako lur horietan esku hartze arkeologiko bat egiteko erabakia hartu genuen. Horrenbestez, 41 metro luze eta 2 metro zabal zen erreten bat ireki genuen Santa Luziatik datorren eta Revillaraino iristen den errepidearen gainean dauden beheko bost terrazak alde igaroz. Sekzioak eskuz garbitu eta dokumentatu ondoren, haiek aztertu eta laginak jaso genituen analisi georkeologikoak egiteko.

Goiko terrazak (5T), gutxi gorabehera 50 m luze aurreko aldean, 10 m sakon eta gehienez ere 2,5 m lodi, 45°-ko lubeta zuen; bigarrena (4T) 30 metro luze, 4 m sakon eta 0,7 metro lodi zen, eta lehorrean paratutako harri irregularrez egindako horma batek mugatzen zuen; hirugarrena ere (3T) lehorrean jarritako harriko hormatxo batek mugatzen zuen, 37 m luze da, 3,8 metro sakon eta gehienez ere 0,5 m lodi; ezpondaren formakoa da laugarren terraza (2T), 40 m luze da, 7,8 m sakon eta gehienez ere 0,7 m lodi. Azkeneko terraza (1T) ez genuen bere sakonera osoan, 8 metrora iristen zen sakonera, erabat induskatu. 50 metro baino luzeagoa da eta guk dokumentatutakoaren arabera 1,8 metro lodi da gehienez ere.

Terraza hauek egiteko bi aldi nagusi bereizi ditugu, Goi Erdi Aroa da aurrenekoa eta aro modernoak bigarrena. Goi Erdi Aroan zehar arian-arian ekarritako begarrien bidez osatu zituzten lubeta horiek. VII. mendean datatu da 5. terraza egin zuten 3B horizontea, 2Ab horizontea VIII. mende amaieraren eta IX. men-

de eta mediante una datación radiométrica entre finales del siglo IX y el siglo X. Se han atribuido a la segunda fase la realización de una tumba excavada en la roca asociada a un paramento de ocho metros de longitud que se ha fechado en el siglo XI. Este edificio ha sido interpretado como la primera iglesia de Santa María mencionada en la documentación escrita. La tercera fase se correspondería con la construcción de la actual iglesia, construcción que ha sido realizada en dos etapas (primero la cabecera y luego la nave) a partir del arrasamiento del edificio anterior. Con posterioridad se habrían formado una serie de depósitos medievales de escasa potencia y entidad que se adosan a la iglesia «románica», a la vez que se habrían llevado a cabo varias reformas puntuales en la fachada del templo. Los últimos materiales medievales fechados son de inicios del siglo XIV por lo que podría ponerse en relación con el abandono de la aldea. La quinta fase es mucho más legible puesto que ha comportado la realización de varios paramentos y de un suelo adosados al lado occidental del templo que presuntamente han tenido funciones residenciales y artesanales. Todas estas estructuras están amortizadas por depósitos masivos del siglo XVII avanzado o inicios del XVIII en el que se han recuperado un importante número de monedas y una importante colección de cerámicas. De hecho hay que pensar que en este momento se produjo un abandono parcial del templo que fue restaurado en los años ochenta del siglo XVIII. La, a partir de entonces, ermita de Santa Lucía fue intensamente restaurada a lo largo de los siglos XIX y XX tal y como se observa en la secuencia estratigráfica de los paramentos del edificio.

Sector 2. En la colina situada al sur de la ermita de Santa Lucía –conocida en su tramo oriental como Castrijo– se localizan toda una serie de terrazas ocupadas en ocasiones por viejas viñas abandonadas en las que se decidió llevar a cabo un estudio arqueológico de estos campos de cultivo. Para ello se realizó una trinchera de 41 m de longitud y 2 de ancho cortando las cinco terrazas inferiores situadas por encima de la carretera que, procedente de Santa Lucía, alcanza Revilla. Tras la limpieza manual de las secciones y su documentación se procedió a su análisis y a la toma de muestras para los distintos estudios georkeológicos.

La terraza superior (T5), de unos 50 m de longitud en su frente, 10 m de profundidad y 2,5 m de potencia máxima contaba con un terraplén de 45 °; la segunda terraza (T4) tenía 30 m de longitud, 4 m de profundidad y 0,7 m de potencia y estaba delimitada por un paramento realizado por piedras irregulares montadas a seco; la tercera terraza (T3) estaba igualmente delimitada por un murete de piedras a seco y su longitud es de 37 m, 3,8 de profundidad y su potencia máxima de 0,5 m; la cuarta terraza (T2) realizada a forma de talud tiene una longitud de 40 m, una profundidad de 7,8 m y una potencia máxima de 0,7 m. La última terraza (T1) no fue excavada completamente en toda su profundidad que alcanzaba los 8 m. Su longitud es de más de 50 m y la potencia máxima documentada de 1,8 m.

Se han documentado dos fases principales en la realización de estas terrazas; una primera de época altomedieval y una segunda de época moderna. En la fase altomedieval estos terraplenes se han formado

dearen artean egokitu zuten bitartean. Ah horizontean egindako datazio berri batek aukera eman du laborantzari emandako espazio osoa XVIII. mendean eraldatu zutela baieztatzeko; hormatxoek mugatutako terrazak antolatu zituzten orduan.

Laburbilduta, herrixkan aztertutako terrazak hainbat alditan egituratu ziren Goi Erdi Aroan zehar, eta antza beren itxurari eutsi zioten aro modernora arte. Eraldaketa hori segur asko teknika tradizionalen landutako mahastiak alde honetara hedatu izan zituztelako gertatu zen, muinoaren mazedetako tarte batzuetan oraindik ere horrelako mahastiak ikus baitaitezke.

Konklusioak

Torrentejoko herri hustua baloratzeko aurreneko kanpaina honetan agerian geratu da aztarnategiaren potentzialtasun handia. Eta artean zalantza asko eta gaingaitu beharreko erronka ugari dauzkagun arren –herri hustuko bizitokiak aurkitu behar dira, dokumentu idatzietan aipatzen diren *palatia*-ak aztertu behar dira eta Behe Erdi Aroko eta Erdi Aro Beteko okupazioaren sekuentzia identifikatu behar da–, oso itxaropentsuak dira aurreneko emaitzak.

Arabako beste eremu batzuetan (esate baterako Lautadan) aztertutako herrixkek ez bezala, Ebro ibaiaren Haraneko lehenengo fundazioen goiztiartasuna berresteko modua eskaintzen du Torrentejok. Oraindik ez da erraza azken urteetan azaleratzen ari diren lurralde txikien arteko aldean esanahia interpretatzea, baina ez litzateke baztertu behar Arabako eskualdeetako gizarte osaera askotarikoak azaldu ahal izatea egituraketa anitz hori. Nolanahi ere den, eskuragarri dauzkagun erregistro arkeologikoak alderatuta, aniztasun hori XI. mende aldera azkar azaleratu zela esan behar dugu. Eta aurkitutako eliza «aurre-erromanikoa» oraingoz eskura dugun adierazle bakarra den arren, dokumentazio idatziak agerian uzten du ingurune honetan jauntxoak zirela nagusi, eta horien xede politikoak oso bestelakoak zirela Arabako Lautadako herrixka askoren helburuekin alderatuta.

Eta hona hemen azken kontu azpimarragarria: Torrentejoko herri hustuak aukera eman du Arabako Errioxako Erdi Aroko terrazak eta laborantza sistemak historian kokatzeko eta, aldi berean, eskualde horretako kultura paisaien azterketa integrala egiteko atek zabaltzeko.

mediante rellenos progresivos. El horizonte 3B en la que se realizó la terraza 5 ha sido fechado en el siglo VII, mientras que el horizonte 2Ab ha sido realizado entre finales del siglo VIII y el siglo IX. Una nueva datación realizada en el horizonte Ah ha permitido situar en el siglo XVIII la transformación de todo el espacio agrario mediante la realización de terrazas delimitadas por paramentos.

En definitiva, el terrazgo de la aldea indagado fue definido en varias etapas a lo largo de la Alta Edad Media y, aparentemente, no sufrió muchas modificaciones hasta época moderna. Presumiblemente esta transformación podría relacionarse con la extensión en esta zona del viñedo cultivado con técnicas tradicionales, tal y como se observan aún en varios tramos de las laderas de la colina.

Conclusiones

La primera campaña de valoración del despoblado de Torrentejo ha mostrado la notable potencialidad del yacimiento. Y aunque quedan aún muchas dudas y retos por resolver –empezando por la localización de los espacios domésticos del despoblado, el estudio de los *palatia* mencionados en la documentación escrita o la identificación de la secuencia ocupacional en época pleno y bajomedieval– los primeros resultados son muy prometedores.

A diferencia de las aldeas indagadas en otros sectores alaveses como la Llanada, Torrentejo permite confirmar la precocidad de las primeras fundaciones en el Valle del Ebro. No resulta aún demasiado fácil interpretar el significado de las diferencias microterritoriales que están emergiendo en los últimos años, aunque no debiera descartarse que la diversa composición social de las comarcas alavesas pudiese explicar esta diversa articulación. En todo caso, esta diversidad emerge con fuerza hacia el siglo XI cuando confrontamos los distintos registros arqueológicos disponibles. Y aunque de momento la iglesia «prerrománica» hallada constituye el único marcador disponible, la documentación escrita muestra que un medio fuertemente señorializado y con horizontes políticos muy diferentes al de muchas aldeas de la Llanada Alavesa.

El último aspecto que merece la pena subrayarse es que Torrentejo ha permitido, por vez primera, historiar las terrazas y los sistemas agrarios medievales de la Rioja alavesa abriendo nuevas perspectivas para el estudio integral de los paisajes culturales de esta comarca.

R. Mansilla; C. Tejerizo; J. A. Quirós

A.13.3.2. Castrijo

Zuzendaritza: Fran Zumalabe Makirriain
Finanziazioa: Bastidako Udala

A.13.3.2. Castrijo

Dirección: Fran Zumalabe Makirriain
Financiación: Ayuntamiento de Labastida

As mentioned earlier, and having reported the results obtained during the intervention, after the completion of the cleaning process, the existence of a possible underlying archaeological site was detected.

Eremu hau garbituta egitura batzuk geratu ziren agerian. Beren norabideari eta morfologiari erreparatuta, egitura horiek egin zituzten lastra edo hareharriaren banaketa kontuan hartuta, ez dugu uste hilobiak direnik.

Los resultados de esta limpieza fueron la afloración de unas estructuras que creemos que no se pueden denominar sepulturas, tanto por su morfología como su orientación y distribución por la lastra o roca arenisca en la que están ejecutadas.

A.13.2. UDAL BARRUTIA / TÉRMINO MUNICIPAL

A.13.2.1. **Torrentejoko herri hustua**

II. kanpaina

Zuzendaritza: Juan Antonio Quirós

Diru-laguntza emaila: Arabako Foru

Aldundia; UPV/EHUko Ondare eta Paisaia

Kulturalen Ikerketa Taldea, Bastidako Udala

A.13.2.1. **Despoblado de Torrontejo o Santa Lucía**

II Campaña

Dirección: Juan Antonio Quirós

Subvención: Diputación Foral de Álava;

Grupo de Investigación en Patrimonio y

Paisajes Culturales de la UPV/EHU;

Ayuntamiento de Labastida

In 2015, the second season of excavations was carried out in the abandoned village of Torrontejo, in the place known as Santa Lucía (Labastida). The intervention aimed to identify the oldest phases of the site's occupation, locate the cemeteries associated with the two churches discovered in Torrontejo and analyse the structures linked to them. The excavations have enabled the identification of an interesting initial Chalcolithic occupation underneath the late medieval agricultural terraces. A cemetery dug into the rock was also discovered to the north of the modern-day building, and the stratigraphic reading of the church's walls was completed. Nevertheless, the most significant finding was a palatium associated with the "pre-Romanesque" church, which was located to the south of the modern-day building. It was also found that the site had been partially destroyed recently during the expansion of a nearby vineyard, principally in the year 2005.

2014. urtean, Arabako Errioxako paisaien dimentsio historikoa aztertze xedean, eta Erdi Aroko herri hustuak aztertze ekimenaren esparruan abiaraziriko estrategiari jarraiki, aurten ere Torrontejoko herri hustuan lan egin dugu. Ebro ibaiaren ertzean dagoen herri hustua da, Behe Erdi Aroan abandonatu zuten, eta Balizko Arkeologia Gune gisa dago zehaztuta. Gerrogo, XVIII. mendean, berri egin zuten eliza, eta orduz geroztik Santa Luzia izenarekin ezagutzen da tenplu hori.

2015. urteko ekinaldi arkeologikoan zehar lortutako emaitza esanguratsuenak labur-labur azaltzen hasi baino lehen, argi eta garbi esan behar dugu aztarnategi honetan ezin hobe islatzen dela Arabako Errioxako ondare arkeologikoak bizi duen egoera tamalgarria. Aztarnategi honetan nonahi daude kontrol arkeologikorik gabe berriki bideratutako esku hartzeen arrastoak. Goi Erdi Aroko hilerriaren ia erabateko suntsipena, Behe Erdi Aroko terraza guztiz eraldatuak, kalkolitoko okupazioaren zati handi baten suntsipena eta aztarnategiaren inguruan bideratutako aldatetako Torrontejon 10 urtera iristen ez den epean bideratu diren prozesu suntsigarrietako batzuk baizik ez dira. Airetik argazkien analisiei, aztarnategiko stratigrafiari eta ahozko iturrietatik jasotakoari esker badakigu suntsipen horietako asko eta asko 2005. urtean gertatu zirela herri jabetzako lurak okupatu zituztenean mahasti baten eremua handitzeko xedean. Beste suntsipen batzuk 2014. urtean gertatu ziren lur sailak ureztatzeko sarea instalatu zutenean. Beste suntsipen batzuk ezin izan dira datatu, baina erabili izan zuten makineria mota kontuan harturik, bistan da berriki egindako suntsipenak direla. Zer gertatu da hemendik 10 urtera Arabako Errioxako lantza eremuko aztarnategietatik? Eta horixe gertatzen ari da, paradoxikoki, Arabako Errioxako Ardoaren eta Mahastiaren Kultura Paisaia Kultur Ondare izendatu dutenean. Eta, E. Hobsbawm-en T. Ranger-en formulazioari jarraiki, «trazioaren asmakuntza» berez oso

Siguiendo la estrategia iniciada en el año 2014 en torno al análisis de los despoblados medievales con el fin de analizar la dimensión histórica de los paisajes de la Rioja alavesa, este año se ha vuelto a intervenir en el despoblado de Torrontejo. Se trata de un despoblado situado a orillas del Ebro y definido como Zona de Presunción Arqueológica, que fue abandonado en la Baja Edad Media. Posteriormente en el siglo XVIII la iglesia fue reformada y desde entonces fue conocida con el nombre de Santa Lucía.

Antes de presentar brevemente los resultados más relevantes obtenidos en la campaña arqueológica del año 2015 hay que subrayar que este yacimiento ilustra perfectamente la situación en la que se encuentra el patrimonio arqueológico de la Rioja Alavesa. Las huellas de intervenciones recientes realizadas sin control arqueológico se encuentran por todo el yacimiento. La destrucción casi completa del cementerio altomedieval, la profunda alteración de las terrazas bajomedievales y el arrasamiento de una parte relevante de la ocupación calcolítica o las alteraciones sufridas en el entorno del yacimiento son solamente algunos de los procesos de destrucción que han tenido lugar en Torrontejo en menos de 10 años. El análisis de las fotografías aéreas, la estratigrafía del yacimiento y las fuentes orales nos permiten concluir que una parte significativa de estas destrucciones tuvieron lugar en el año 2005 ocupando terrenos de propiedad pública para ampliar los espacios de viñedo. Otras destrucciones han tenido lugar en el 2014 realizando una red de riego. Otras no se han podido fechar, pero a tenor del tipo de maquinaria utilizada, son igualmente muy recientes. ¿Qué quedará de los yacimientos rurales de la Rioja Alavesa dentro de 10 años? No deja de ser paradójico que todo esto ocurra mientras el Paisaje Cultural del Vino y del Viñedo de la Rioja Alavesa es declarado Bien Cultural. Y aunque siguiendo la formulación de E. Hobsbawm y T. Ranger, la «invencción de la tradición» es de por sí un fenómeno

fenomeno historiko garrantzitsua den arren egungoa bezalako krisi betean bizi den gizartean azkar eta sakon gertatzen diren prozesuak aztertzekeo garaian, arkeologiak oso tresna garrantzitsuak eskaintzen ditu ondarea eraikitzekeo eta, oinarri historiko sendoetatik abiatuz, Arabako Errioxako kultura paisaiak berriro ere zehaztekeo. Paisaia horiek funts historikoez gabetzen baditugu, deskapitalizatuko ditugu ondarearen ikuspuntutik, eta beste izaera bat emango diegu, hain zuzen ere paisaia izaera bera zehazten duten kultur oinarriak baztertzen dituen izaera.

2015. urteko kanpainaren emaitzak

Zalantzarik gabe, protohistoriako okupazio bat izan da 2015. urteko kanpainan izan dugun berrikuntza nagusia. Okupazio hori 5000 sektorean aurkitutako Behe Erdi Aroko laborantzari emandako terrazen azpian identifikatu genuen. Zehazkiago, arroka gainean pausatutako jalkin kolorez gorriak batzuk dira, horietan kanpai-formako zeramikazko 44 zati berreskuratutako genituen, 15 aleri zegozkie zatiak, gehi kalkolitoko 143 zeramika zati eta suharrizko ijeki eta nukleo batzuk. Eta okupazio hori bere luze-zabalera osoan aztertu nahi izan ez dugun arren, Euskal Herriko Unibertsitateko Historiaurreko Ikerketa Taldeko kideekin batera egindako zundaketek, aztarnategia egiaztatzekeo zundaketek, aukera eman dute jalkin horiek Erdi Aroko laborantzarako terraza sorta batek estalitako azalera handian zabal-tzen direla egiaztatzekeo. Esan beharra dago Arabako beste aztarnategi batzuetan (esate baterako Zornoztegikoan) edo penintsulako beste lurralde batzuetako zenbait aztarnategitan oso ohikoa dela kalkolitoko eta Goi Erdi Aroko okupazioak elkarren gainean agertzea, izan ere, nekazarien komunitateen agintziak pisu handia izango zuen gizartea eraikitzekeo prozesuetan aipatu bi aro edo garai horietan.

Etenaldi luze baten ostean, K.o. VII. mendean, leku hau berriz ere okupatu zuen nekazariak osatutako komunitate batek, 2014. urtean Castrijo mui-noaren iparraldeko mazelan identifikatutako laborantza terrazen sisteman lortutako datazioek egiaztatzen duten bezala. Terrazak eraikitzekeo prozesu bera da komunitatearen auzolanaren erakusgarri. Hala eta guztiz ere, oraindik ez dugu aurreneko okupazioari dagozkion aztarnak topatu. 2015. urtean bideratutako indusketan zantzu esanguratsu sorta bat hauteman badugu ere, aztarna horiek gerora bideratu diren esku hartzeek erabat baldintzatuta daude. Zehazkiago, hiru dira Goi Erdi Aroa bildu daitezkeen aztarna motak. Hasteko, Ama Birjinaren elizaren iparraldeko plataforman, arrokan induskatutako hilerrin baten aztarnak identifikatu dira, baina tamalez, ia erabat suntsituta dago. Hileta eremu hori ezin datatu izan den arren, eskura dauzkagun datuen arabera iradokiko dugu bertara bildu zela Goi Erdi Aroko landa eremuko komunitatearen memoria. Bigarrenik, hilerrin horretatik hurbil, eliza «erromanikoaren» beraren azpian, inolako zalantzarik gabe lehenagoko aldi batekoak diren egitura batzuen aztarnak azaldu dira. Ez dakigu aztarna horiek eliza «prerromanikoarekin» lotuta dauden ala aurrez zegoen beste errealitate batekin. Soilik tenpluaren barrunbea induskatuta argitu liteke kontu hori. Era berean, hilerritik hurbil, Goi Erdi

no historiko de gran interés a la hora de analizar los procesos de cambio rápido y profundo que tienen lugar en una sociedad en crisis como la actual, la arqueología proporciona instrumentos críticos para construir patrimonio y re-conceptualizar los paisajes culturales de la Rioja Alavesa a partir de sólidas bases históricas. Evitar dotar de profundidad histórica a estos paisajes supone descapitalizarlos en términos patrimoniales e imponer una nueva identidad que traiciona precisamente las bases culturales que definen la esencia misma de los paisajes.

Los resultados de la campaña del año 2015

Sin duda alguna una de las principales novedades de la campaña del año 2015 viene dada por el hallazgo, bajo las terrazas agrarias de época bajomedieval localizadas en el sector 5000, de una ocupación protohistórica. Más concretamente se ha localizado una serie de depósitos rojizos dispuestos sobre la roca en los que se han recuperado 44 fragmentos de cerámica campaniforme correspondientes a un total de 15 individuos, así como 143 fragmentos de cerámica calcolítica y algunas láminas y núcleos de sílex. Y aunque no se ha querido indagar en extensión esta ocupación, los sondeos de verificación realizados en colaboración con los compañeros del Grupo de Investigación de Prehistoria de la Universidad del País Vasco han permitido verificar que estos depósitos se extienden por una amplia superficie cubierta por una serie de terrazas agrarias de cronologías medievales. Hay que señalar que también en otros yacimientos alaveses (como Zornoztegi) o de otros territorios peninsulares es común la superposición entre ocupaciones calcolíticas y altomedievales, superposición que podría explicarse por el hecho del peso que ha tenido la agencia de las comunidades campesinas en los procesos de construcción social de los paisajes en ambos períodos.

Tras un largo hiato el lugar vuelve a ser ocupado por una comunidad rural en el siglo VII d C, tal y como mostraron las dataciones realizadas en el sistema de terrazas agrarias identificadas en la ladera septentrional de la ladera de Castrijo en el año 2014. El proceso mismo de construcción de las terrazas ha de considerarse como la materialización de la acción colectiva de la comunidad. Siguen faltando, no obstante, los restos de esta primera ocupación. Y aunque en la excavación del año 2015 se han hallado una serie de indicios significativos, estos restos están muy comprometidos por las intervenciones posteriores. Más concretamente son tres tipos de evidencias las que pueden ser asignadas al período altomedieval. En primer lugar se han identificado en la plataforma situada al norte de la iglesia de Santa María los restos de un cementerio excavado en roca destruido prácticamente en su totalidad. Aunque aún no se ha podido fechar este espacio funerario, con los datos disponibles se puede sugerir que fue en este lugar donde se concentró la memoria de la comunidad aldeana altomedieval. En segundo lugar, y en proximidad de este cementerio, se han hallado bajo la misma iglesia «románica» restos de estructuras pertenecientes claramente a una fase anterior. No es posible determinar si estaban asociados a la iglesia «prerrománica» o a una realidad previa. Solamente la excavación del interior del templo permitiría abordar esta cuestión. Asimismo

Aroko material batzuk berreskuratzen genituen. Material horiek bigarren egokieran zeuden eliza berreraikitzeke xedean XVII. mendean baliatu zuten harrobia amortizatzen zuten betegarrietan; harrobi horretako jardunak, gainera, aurrez zeuden deposituak galarazi zituen. Azken buruan, hipotesi mailan bada ere, esan dezagun Torrentejo herrixkaren atal bat bederen egun Santa Luzia baseliza dagoen lekuan egon zela. Hala eta guztiz ere, sektore horietako deposituak behin eta berriz nahasi izan dituzte, eta ez dirudi Torrentejo Goi Erdi Aroko herrixkako bizitegiak egiazatzeko modurik izango denik.

Ez dakigu zein mekanismoren bidez sendotu zen jauntxoaren boterea Torrentejo herrixkan. Baina XI. mendean azken laurdenean finkamendu hau historian sartu zenean erabat polarizatuta zegoen alde honetako geografia politikoa. XI. mendean jabe bakar baten esku dagoen Arabako herri bakarrenetakoa da Torrentejo; kasu honetan Nafarroako errege Antso IV.a zen herriaren jabea. Baina ez da dokumentuetan agertzen den botere handiko pertsona bakarra, alde honetan aristokrata sorta ez txiki bat bizi izan zela adierazten baitigute iturri idatziek.

Etxebizitza handi baten eta hari lotutako eliza «prerromanikoaren» aurkikuntzak jauntxoaren ekintza ikusteko aukera ematen du. Eraikin handi hori guztiz berezia eta bakarra da penintsularen iparraldeko landa eremuetan bildutako erregistro arkeologikoetan. Eta soilik partzialki induskatu bada ere, finkamenduko bizitzan egitura garrantzitsuenetakoa izango zela salatzeko dute eraikinaren kalitate arkitektonikoak, espazioa antolatzeke duen gaitasunak eta eliza «prerromanikoarekin» aurrez zuen loturak. Guk uste dugu *palatium* bat dela, baina ezin zehaztu dezakegu Muño Garciak 1085. urtean Torrentelion zeuzkan jauregi-tako bat ote den ala ez.

Eliza «erromanikoaren» barruan induskatu ezean nekez identifikatuko da eliza «prerromanikoaren» oinplanoa. Segur asko eliza pribatu bat izango zen, *palatium*-aren itzalean XI. mendean zehar eraikia eta alde zuzenetik zeuden bizitegi espazioak amortizatu ondoren, landa ingurunea eskuratzeko prozesu bat gertatu zela iradokitzen duela. Prozesu hori Arabako beste aztarnategi batzuetan dokumentatu da, esate baterako Zaballakoan, eta agintearen erakusgarritzat interpretatu behar da. Torrentejo kasuan, baina, ezin argitu daiteke *palatium*-aren eta elizaren ezarpenak landako komunitatearen bizitokiak lekuz aldatzea eragin ote zuen, Zaballan bezala, izan ere, ez dugu garai bereko bizitokiak legokiekkeen eraikinik hauteman. Hala eta guztiz ere, ez dugu hipotesi hori baztertu behar, horrenbestez azalduko bailitzateke, egoki azaldu ere, hain zuzen ere absentzia hori.

Nafarroako errege Antso IV.ak egindako emakidatik aurrera, San Millán de la Cogollako monasterioaren mende geratu zen Torrentejo, eta monasterioaren jabetzako bihurtu zen. Horrenbestez, monasterioaren ekimenari jarraiki eraikiko zuten gaur egun ikus dezakegun eliza «erromaniko». Oraindik goiz da San Millango monasterioak Torrentejo komunitatea kudeatzeko orduan izan zuen eragina zehazteko. XI. mendeko dokumentuak aintzat hartzen baditugu, argi dago San Millango monasterioak ahaleginak egin zituela Torrentejoen zuen posizioa zabaltzeko eta sen-

se han recuperado en proximidad del cementerio una serie de materiales altomedievales en posición secundaria en los rellenos de amortización de la cantera del siglo XVII realizada para reconstruir la iglesia y que ha comportado la destrucción de los depósitos anteriores. En definitiva, se puede formular como hipótesis que al menos una parte de la aldea de Torrentejo estuvo situada en el lugar donde se levanta hoy la iglesia de Santa Lucía. No obstante, las numerosas alteraciones que han sufrido los depósitos de estos sectores no permiten pensar que sea posible reconocer en Torrentejo los espacios habitacionales de la aldea altomedieval.

Desconocemos los mecanismos a través de los cuáles tuvo lugar la consolidación del poder señorial en la aldea de Torrentejo. Pero cuando el yacimiento entra en la historia en el último cuarto del siglo XI, la geografía política de la zona está claramente polarizada. Torrentejo es uno de los pocos pueblos alaveses que se encuentra en manos de un único propietario en el siglo XI, y en este caso se trata del rey Sancho IV de Navarra. Pero no es el único potente presente en los documentos de forma que los textos mencionan la presencia en la zona de un nutrido conjunto de aristócratas.

El hallazgo de un edificio doméstico monumental y de una iglesia «prerrománica» asociada permiten visibilizar esta acción señorial. Este edificio de carácter monumental es, sin ninguna duda, singular y excepcional en los registros arqueológicos rurales disponibles para el norte peninsular. Y aunque solamente se ha excavado de forma parcial, su calidad arquitectónica, su capacidad organizativa del espacio y su prelación respecto a la iglesia «prerrománica» permiten pensar que se trata de una estructura central en la vida del asentamiento. Pensamos que se trata de un palatium, sin que se pueda establecer con certeza que se trate de los palacios in Torrentelio que Muño García poseía en el año 1085.

En ausencia de excavaciones en el interior de la iglesia «románica» no parece posible identificar la planta de la iglesia «prerrománica». Se trata, seguramente, de una iglesia privada construida a la sombra del palatium a lo largo del siglo XI amortizando espacios domésticos previos, lo que sugiere que ha tenido lugar un proceso de apropiación del medio aldeano. Es un proceso que se ha documentado en otros yacimientos alaveses, como es el caso de Zaballa, y debe interpretarse como un acto de dominio. Lo que no se puede determinar en el caso de Torrentejo es si la implantación del palatium y la iglesia comportó, como en Zaballa, un desplazamiento de los lugares de habitación de la comunidad aldeana porque no se han detectado construcciones domésticas coetáneas. No obstante no debe descartarse esta hipótesis, puesto que de esta manera se explicaría adecuadamente precisamente esta ausencia.

A partir de la donación del rey Sancho IV Torrentejo pasó a manos del monasterio de San Millán de la Cogolla y se convirtió en una decanía del monasterio. Debemos por lo tanto atribuir a la acción del monasterio la construcción de la iglesia «románica» tal y como la vemos hoy en día. Aún es pronto para determinar el efecto real que tuvo la gestión de San Millán sobre la comunidad de Torrentejo. Es evidente a través de los documentos del siglo XI que San Millán se preocupó por ampliar y reforzar su posición en To-



Torrentejon aurkitutako kanpai-formako zeramika. Beheko eskuineko angeluan: Torrentejoko *palatium*-a.

El *palatium* de Torrentejo. En el ángulo derecho: cerámica campaniforme hallada en Torrentejo.

dotzeko, baina ez dakigu ekimen horiek zer-nolako eragina izan zuten tokiko herritarren artean. Herrixka segur asko baselizaren eta uharraren arteko espazioan egokituko zen, tokiko paisaia erabat eraldatu duten mahastiek egun hartzen duten espazioan, eta beraz, ia inolako zalantzarik gabe galaraziko ziren garai hartako deposituak.

Torrentejoko nekazarien komunitatearen arrastoari jarraitzea egiazki zaila denez, ezinezkoa da jakitea nola eta noiz abandonatu zuten alde hau. Hala eta guztiz ere, 2000. sektorean, arraste prozesu naturalen bidez Behe Erdi Aroan osatutako deposituak aurkitu ditugu, eta depositu horiek sekuentzian etenaldi bat izan zela adierazten digute. Baliteke Torrentejon komunitate egonkor bat bizi izana Erdi Aro Betean eta Behe Erdi Aroan, eta denboraren joanean eta guk ezagutzen ez ditugun prozesuen ondorioz inguru hau XV. mendean zehar abandonatu izana, erradiokarbonoaren bidezko datazioek iradokitzen duten bezala.

Geroago, XVII. mendean, tenpluaren horma atal batzuk berritu egin zituztela dokumentatu dugu. Paradoxikoki, zaharberritze orokorra da, materialaren ikusgarritasuna handia da, baina bestalde, zaila da hura ezaugarritzen. Bigarren okupazio horretan berreraiki egin zuten baseliza, harrobi tarte handi bat ustiatu zuten, eta zeharo eraldatu zuten baselizaren ingurua. Gainera, elizaren hegoaldean, betegarri lodiak estali zituzten Erdi Aroko eraikinen hondakinak, eta etxebizitza berri bat altxa zuten bertan. Okupazio hori amortizatzen duten mailen artean artisautzatza jardueren aztarnak bereizi dira, estalitako ze-

rentejo, pero no sabemos qué efecto concreto tuvieron estas iniciativas sobre la población local. La nada improbable posibilidad de que el poblado se ubicase en el espacio comprendido entre la ermita y el propio torrente, ocupado actualmente por los viñedos que han transformado radicalmente el paisaje local, habría comportado casi con toda seguridad la destrucción de los depósitos de este período.

La dificultad de seguir la pista a la comunidad rural de Torrentejo se traduce en la imposibilidad para determinar cómo y cuándo tuvo lugar el proceso de abandono del lugar. No obstante en el sector 2000 se han hallado depósitos de arrastre natural bajomedieval que sugieren la existencia de un hiato en la secuencia. Es posible pensar que en Torrentejo se mantuvo una comunidad residente durante la Plena y la Baja Edad Media y que, siguiendo tiempos y procesos que desconocemos, se produjo el abandono del lugar a lo largo del siglo XV, tal y como sugieren las dataciones radiocarbónicas.

Con posterioridad se han documentado algunas reformas en los paramentos del templo en el siglo XVII. Paradójicamente se trata de una reforma masiva y que tiene una notable visibilidad material, pero por otro lado no resulta particularmente sencilla de caracterizar. Esta reocupación comportó la reconstrucción de la ermita, la apertura de un amplio frente de cantera y la profunda transformación del entorno de la ermita. Además en el lado sur de la iglesia se amortizaron mediante potentes rellenos los restos de las construcciones medievales y se implantó un nuevo edificio doméstico. Entre los

ramikaren produkzioan espezializatutako buztingintza tailer bat zehazki.

Okupazio horrek etenaldi bat izan zuen XVII. mende amaieran edo jada XVIII. mendean zehar, tenplua eta hari atxikiriko egiturak berriz hondatu zirela ikus baitaiteke. 1780. urtean eliza berriz ere erabiltzen hasi zirenean, aldaketa nabarmena gertatu zen tenpluaren izaeran eta esanahian, izan ere, Santa Luziaren izena eman zioten eta bazterrera utzi zuten, ahantzirik nonbait, Torrentejo Ama Birjinaren erreferentzia. Multzo hori ondasun pribatua izatetik ondasun publiko izatera igaro zen Bastidako Udalari eskualdatu ziotenean. Une horretatik aurrera leku honetako historian protagonista bihurtzen da urteroko erromeriaren bidez adierazitako herri jaiara. XIX. eta XX. mendeetan zehar ondoz ondo bideratutako hamika esku hartzeek agerian uzten dute Bastidako herriak duen interesa tenpluaren memoria historikoa eta materiala babesteko. Prozesu horren bidez bere ingurunearen testuingurutik kanpora geratzen da monumentua, eta galdu egiten da eliza eraiki zen herriaren memoria. Bestela esanda, memoria berreskuratzeko prozesuaren bidez eliza tenpluan mantentzea bermatzen da, baina aldi berean, herriaren dagokionez, edukiez husten da.

Hala eta guztiz ere, artean bidean diren datazioek eta egin beharreko indusketek argituko dituzte okupazioaren sekuentziak oraindik planteatzen dituen puntu ilun asko.

Ondarearen zabalkundea eta gizarteratzea

Ondareari halako zabalkundea emateko eta gizarteratzeko hainbat ekintza eraman dira burura proiektu arkeologikoaren esparruan: ate irekiko jardunaldiak, hitzaldiak eta 'Bastidako Arkeologia eta Kultur Paisaiak' erakusketa (Bastidako Kultur Etxea, 2015eko maiatzak 8 - ekainak 12). Ekimen horiek herritarren ondarea eraikitzekeo prozesuetan inplikatzeko eta proiektu arkeologikoaren esparruan lortutako emaitzak ezagutarazteko zuten helburu.

niveles de amortización de esta ocupación se han hallado asimismo evidencias de actividades artesanales, y más concretamente de un taller alfarero especializado en la producción de cerámica revestida.

Esta ocupación cesa en un momento avanzado del siglo XVII o ya a lo largo del siglo XVIII, momento en el que se detecta una nueva degradación del templo y de las estructuras asociadas. Cuando se retoma la iglesia hacia el 1780 se produce un cambio sustancial en la naturaleza y significado del templo, cuya manifestación más evidente es el cambio de la advocación a Santa Lucía y el olvido de la referencia a Santa María de Torrentejo. El conjunto pasa de ser bien propio a bien común tras su traspaso al Ayuntamiento de Labastida. Es a partir de este momento cuando la devoción popular expresada a través de las romerías anuales se hace protagonista en la historia de este lugar. Las numerosas intervenciones menores que se suceden a lo largo del siglo XIX y XX muestran el interés por parte de Labastida por preservar la memoria histórica del templo y su materialidad. A través de este proceso se descontextualiza el monumento de su entorno y se pierde la memoria del poblado en el que había sido creada la iglesia. Dicho de otra forma, a través del proceso de materialización de la memoria en el templo se garantiza el mantenimiento de la iglesia, pero a la vez se vacía de contenido en términos de poblado.

No obstante, las dataciones aún en curso y la prosecución de las excavaciones deberán aclarar muchos puntos oscuros que aún presenta la secuencia ocupacional.

Difusión y socialización patrimonial

En el marco del proyecto arqueológico se han llevado a cabo varias acciones de difusión y socialización patrimonial que han incluido jornadas de puertas abiertas, conferencias y la exposición 'Arqueología y Paisajes Culturales de Labastida' (Casa de la Cultura de Labastida, 8 mayo-12 junio 2015). A través de estas iniciativas se ha pretendido implicar a la comunidad en los procesos de construcción patrimonial y divulgar los resultados obtenidos en el marco del proyecto arqueológico.

C. Tejerizo García; J.A. Quirós Castillo

2015



Arkeologi Ikerketa Investigación Arqueológica

EUSKO JAURLARITZA

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA
Kultura Ondarearen Zuzendaritza



GOBIERNO VASCO

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,
POLÍTICA LINGÜÍSTICA Y CULTURA
Dirección de Patrimonio Cultural

Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia
Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco

Vitoria-Gasteiz, 2016